

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3725

AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena. Honen bidez, aditzera ematen da fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeei 2013. urtean emango zaizkien laguntzen guztizko zenbatekoa.

Fruta eta barazki-ekoizleen antolakundeentzako laguntzak fruta eta barazkien sektoreko merkatu antolakunde bateratutik (MAB) datoz, Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan. Gaur egun, bi laguntza-mota daude: onartutako ekoizle-elkarteentzako erkidego-laguntza eta erakunde horientzako laguntza nazional osagarria.

Arlo horretako MAB arautzen duen erkidego mailako araudiaren azken aldaketaren ondotik, Euskal Autonomia Erkidegoan 30/2010 Dekretua argitaratu zen (urtarrilaren 26ko Dekretua, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duena). Dekretu horrek indargabetu eta ordeztu egin ditu laguntza horiek aurretik arautzen zituzten arauak: urriaren 14ko 228/1997 Dekretua eta martxoaren 21eko 56/2000 Dekretua.

Nahiz eta eskabideak aurkezteko epeak modu mugagabeen dauden ezarrita erkidego-araudian eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuan (beranduenera jota hurrengo urteko otsailaren 15ean, alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere), dekretu horren beraren 25.4 artikulua ezartzen du urtero emango dela jakitera agindu bidez dena delako urte horretan guztira zenbateko laguntzak emango zaizkien fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeei.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntzen zenbatekoa.

Guztira, 2013. urterako, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duen urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 22. artikuluko 1. paragrafoaren a) eta b) idatzi-zatietan aurreikusitako laguntzek ezingo dituzte gainditu kopuru hauek:

- 215.446,80 euro, NBBEFren konturako laguntzetan.
- 120.000,00 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako laguntzetan.

Bigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Ondorioak.

Ebazpen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak. Nolanahi ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 31.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.